



Zuzendaritza Batzordearen antolaketa eta funtzionamendurako barne- erregelamendua

2026eko uztaila



Dokumentu hau irisgarritasun-irizpideen arabera diseinatu da, eta bereziki dago baliabide digitalen bidez bistartzeko pentsatuta.



Mutualia, Mutualia Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen 2 zenbakiko mutua

Henao kalea, 26

48009 Bilbo

Telefono-zenbakia: 94 4252500

www.mutualia.eus/eu/

Informazio gehiagorako, posta elektronikoko bidez jar zaitezke gurekin harremanetan:
dircom@mutualia.es

AURKIBIDEA

HITZAURREA

ATARIKO TITULUA

1.	artikulua. Definizioa eta xedea	5
2.	artikulua. Irismena	6
3.	artikulua. Bertsio elebiduna eta hedapena	6
4.	artikulua. Arauen lehentasuna eta interpretazioa	6
5.	artikulua. Onestea, indarraldia eta aldatzea	7

I. TITULUA.- PRINTZIPIOAK ETA ESKUMENAK

6.	artikulua. Printzipio orokorrak	7
7.	artikulua. Jarduteko printzipioak	8
8.	artikulua. Zuzendaritza Batzarraren eskumenak	10

II. TITULUA.- ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

9.	artikulua.- Zuzendaritza Batzarraren osaera eta kideak eta ordezkariak hautatzeko arauak	12
10.	artikulua.- Zuzendaritza Batzarreko karguak	14
11.	artikulua.- Interes-gatazken kasuetan jarduteko arauak	16
12.	artikulua.- Zuzendaritza Batzarreko kideen eta kargu horien ordezkarien kargu-uztea	16
13.	artikulua.- Zuzendaritza Batzarraren bilerak	17
14.	artikulua.- Zuzendaritza Batzarraren bileretara bertaratzeagatiko konpentsazioak	20
15.	artikulua.- Zuzendaritza Batzarraren aktak eta akta-liburua	20

Onarpen eta berrikuspen taula	22
--------------------------------------	-----------

Hitzaurrea

“MUTUALIA” Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen 2 zenbakiko mutuaren (aurrerantzean, “Mutualia”, “mutua” edo “entitatea”) Zuzendaritza Batzordeak, entitatearen Gobernu Korporatibo Onaren Sistemari integratutako gobernu-organoa den aldetik, Mutualiaren misiotik abiatuta eta bere xedea, balioak eta kode etiko orokorra onartuta, zehaztua eta onetsia du Gobernu Korporatibo Onaren Politika Orokorra (aurrerantzean, politika orokorra). Xedean, misioan, balioetan eta kode etikoan islatutako printzipioak garatuz, Gobernu Korporatibo Onaren Sistemaren funtsezko pieza da hori, eta Mutualia osatzen duten pertsona fisiko eta juridikoen jardueren eta portaeren funtsezko alderdiak biltzen ditu, baita arlo horretan Gizarte Segurantzarekin lankidetzak izateko dituen konpromisoak ere.

Politika Orokorrean jasotzen, zehazten eta mugatzen dira Mutualiaren gobernu- eta partaidetza-organoen printzipio orokorrak eta jarduteko printzipioak, eta haietara moldatu behar dituzte beren portaera, jardura eta erabakiak, Kode Etikoan xedatutakoaren arabera jardunez, bere jarduneko portaera etiko eta arduratsuaren berme gisa.

Zuzendaritza Batzordea, bere administrazio eta ordezkaritzaz arduratzen den mutuaren zuzeneko kide anitzeko organoa den aldetik, eta bere batzorde delegatu exekutibo eta teknikoak, erakundearen gobernantza onaren edo administrazio onaren funtsezko oinarriak dira. Hori modu zabal eta zehatzean garatzen da aipatu Politika Orokorrean, zeinak, besteak beste, honako gai hauek jasotzen baititu: kide eta karguen betebeharrak, haien hautapen eta izendapena, haiek berritzeko planak, Zuzendaritza Batzordeko presidentea eta batzordeak Zuzendaritza Batzordearen ikuskapenaren mende daudela bermatzen duen kontrapisuen sistema, baita bileretako gobernu egokirako arau batzuk ere.

Aipatu Politika Orokorra onetsi ondoren, Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzailetak Nagusiak mutuei ohar bat helarazi zien: “GIZARTE SEGURANTZAREKIN LANKIDETZA DUTEN MUTUEN BARNE-KONTROLAREN ANTOLAKETARI BURUZKO ZENBAIT ALDERDI OROKORREN EBALUAZIOA, ETA HORIEN ERAGINKORTASUNA ENPRESA ELKARTUAK ETA LANGILE ATXIKIAK INPORTATZEKO DEBEKUA BETETZEKO”. Hori mutuaguztietako zuzendaritza-batzordeetako kideek betetako galdetegietatik lortutako erantzunen emaitza izan zen; izan ere, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuen gobernu eta zuzendaritzarako garrantzitsuak diren kudeaketa-jardunbide egokietagaitz garrantzitsuak diren buruzko 2017. ekitaldiko kudeaketaren barne-kontrolaren auditoretza egin zen, funts publikoak kudeatzen dituzten erakunde diren aldetik.

Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzailetak Nagusiak galdetegi horretan planteatutako gaietako bat da ea “mutuak Zuzendaritza Batzordearen erregelamenduren bat duen, aplikatu beharreko lege- eta estatutu-araudia garatu eta osatzen duena, eta ea honako hauek ezartzen dituen: batzordeen jarduteko printzipioak, haien antolaketa eta funtzionamendurako oinarritzko arauak, eta hautapen, izendapen, berrautapen, kargu-uzte, kideen ahalmen eta betebeharrei buruzkoak eta abar”.

Horretarako, Mutualiaren Gobernu Korporatiboko Politika Orokorrarekin bat etorri, eta 2021-2025 "Gobernu Korporatiboa-Herritarren Enpresa Sustatzea" Plan Estrategikoarenildo estrategikoaren garapen-esparruaren barruan, Mutualiaren estatutu etako II. tituluko II. kapitulu osatu eta garatu da, baita politika orokor horretan gobernu-organo horri dagozkion apartatuak ere, ZUZENDARITZA BATZORDEAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDURAKO BARNE-ERREGELAMENDU honetan. Honen hasierako bertsioa 2021eko uztailaren 6ko bileran onetsi zuen Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar Orokorrak berretsi zuen 2021eko uztailaren 16ko ohiko bilkuran. Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiari 2021eko uztailaren 29an jakinarazi zitzaion.

Erregelamendu honen bertsio berrikusia (2. ber.) 2025eko maiatzaren 30eko bileran onetsi zuen Zuzendaritza Batzordeak, eta 2025eko uztailaren 18ko ohiko bilkuran berretsi zuen Batzar Orokorrak.

Erregelamendu hau prestatzeko, kontuan hartu dira, oro har, Gobernu Onaren nazioarteko gomendioak eta, bereziki, Ekonomia Jasangarriari buruzko 2/2011 Legearen 35. artikulua, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuei aplikatzekoa, zeinak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak baititu, abenduaren 26ko 35/2014 Legearen azken xedapenetako laugarrenean xedatutakoaren arabera. Lege horrek Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra aldatu zuen, mutuen araubide juridikoari dagokionez, zeinaren arabera aurreikusten baita erakunde horiek beren kudeaketa lege horretan adierazitako printzipioetara egokituko dutela, eta plan estrategikoak egokituko dituztela, besteak beste, gobernu korporatiboaren txostenak urtero aurkezteko, bai eta jasangarritasun-memoriak aurkezteko ere, normalean onartzen diren estandarren arabera, honako gai hauei arreta berezia jarritz: emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna eta desgaitasuna duten pertsonen erabateko integrazioa; Gardentasunari buruzko 19/2013 Legearen printzipioak eta beste alderdi batzuk, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu korporatibo onari buruzkoak; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legea, batez ere printzipio orokorreari eta jarduteko printzipioei dagokionez, eta kide anitzeko organoen funtzionamenduari dagokionez; 15/2022 Legea, uztailaren 12koa, tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako integrala; 2/2024 Lege Organikoa, abuztuaren 1ekoa, ordezkartza parekideari eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatuari buruzkoa; Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza, Zaintza, Kontrol eta Fiskalizazio Organoen jarraibideak, zirkularrak eta gomendioak; eta Mutualiako aholku-batzordeen eta barneko parte-hartzeari buruzkoen gomendioak

ATARIKO TITULUA

1. artikulua.- Definizioa eta xedea.-

- 1.1.- ZUZENDARITZA BATZORDEAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDURAKO BARNE-ERREGELAMENDU hau (aurrerantzean, "Erregelamendua"), Mutualiaren Integritatearen eta Gobernu Korporatibo Onaren Sistemaren parte da, eta, indarrean dagoen legedia, entitatearen estatutu sozialak eta Gobernu Korporatibo Onaren araudia betez, Mutualiaren Zuzendaritza Batzordearen garapen osagarria eta antolamendu espezifikoa eta zehatza egiten ditu. Horiek, aldi berean, bere legezko, erregelamenduzko, estatutuzko eta gobernu korporatiboko araubidea osatzen eta garatzen du.
- 1.2.- Helburua printzipio orokorrak eta jarduteko printzipioakosatzea da, baita Mutualiako Zuzendaritza Batzordearen antolaketarako eta funtzionamendurako oinarritzko arauak ere, Gobernu Korporatibo Oheko Politika orokorrean aurreikusiak, entitatearen, interes publikoko taldeen eta Gizarte Segurantzarekin lankidetzan aritzeko zerbitzuen gardentasun, partaidetza, eraginkortasun, kudeaketa etiko, integritate, aniztasun, erantzukizun eta kontrol handiagoa bermatzeko. Hori guztia, eskubide guztiak —hizkuntza-eskubideak barne— baliatzen dituztela bermatuz, eta kontu ematen dieten erakundeekiko eta gizartearekiko etengabeko harremanean.

2. artikulua.- Irismena

- 2.1.- Erregelamendu hau Zuzendaritza Batzordeari eta haren batzorde delegatuei aplikatuko zaie, 2.3. apartatuan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, baita Mutualiarekin elkartutako pertsona fisiko eta juridikoei, haien ordezkari diren pertsona fisikoei eta mutuako langileen ordezkari diren pertsona fisikoei, eta mutuari atxikitako langileen ordezkari diren norberaren konturako langileei edo langile autonomoei ere.
- 2.2.- Erregelamendu hau aplikatu behar zaien Zuzendaritza Batzordeko kideak, ordezkariak eta karguak behartuta daude erregelamendua ezagutzera, betetzera eta betearaztera. Horretarako, ale eguneratu bat izango dute eskura eta, ahal dela, ale hori baliabide elektronikoen bidez entregatu edo eskuragarri jarri delako ebidentzia gordeko da.
- 2.3. Erregelamendu hau Zuzendaritza Batzordeko batzordedelegatuen funtzionamenduan ere aplikatuko da, modu subsidiarioan (bakoitzaren barne-erregelamenduan aurreikusi ez den orotan).

3. artikulua.- Bertsio elebiduna eta hedapena

- 3.1.- Erregelamendu hau Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan idatziko eta onetsiko da, eta biak izango dira benetako bertsio. Testua interpretatzean zalantzarik izanez gero, ministerio eskudunaren zuzendaritza- eta tutoretza-organoari jakinarazitako gaztelaniazko bertsioaren zentzua eta esanahia lehenetsiko dira, kontuan hartuta erakundeak Espainiako estatu osoan duela jarduteko eremua.
- 3.2.- Erregelamendu hau eta ondoren mutuaren Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak egiten dituzten aldaketak onetsitakoan, ministerio eskuduneko zuzendaritza- eta tutoretza-organoari jakinaraziko zaio.
- 3.3.- Erregelamendu honen indarreko testu eguneratu eta elebiduna beti egongo da eskuragarri Mutualiaren webgune korporatiboan.

4. artikulua. Arauen lehenetasuna eta interpretazioa

- 4.1.- Erregelamendu honek garatu eta osatu egiten du aplikatzekoa den lege-, erregelamendu- eta estatutu-mailako araudia; erregelamendu honetan xedatutakoarekin kontraesanean egonez gero, lehenetasuna hark izango du.
- 4.2.- Erregelamendu honen interpretazioari eta aplikazioari buruz sor daitezkeen zalantzak Zuzendaritza Batzordeak berak argituko ditu, eta, premia izanez gero, presidenteak edo, kanpoan edo ezinduta egonez gero, estatutuei jarraikiz hura ordeztzen duen pertsonak.

5. artikulua.- Onestea, indarraldia eta aldatzea

- 5.1.- Zuzendaritza Batzordeak, gai-zerrendako puntu hori jasotzen duen bileran hartutako erabaki baten bidez, erregelamendu hau onetsi edo, hala badagokio, aldatu egingo du, eta bi erabakiak Batzar Orokorrak berretsi beharko ditu, hurrengo ohiko bileran.
- 5.2.- Erregelamendu hau aldatzeko ekimena Zuzendaritza Batzordearen presidenteari dagokio, edo Batzordeko kideen herenei (1/3). Ekimena justifikatzeko, egin nahi den aldaketaren arrazoiei eta irismenari buruzko memoria aurkeztu behar da. Zuzendaritza Batzordeak aipatutako aldaketa-proposamenari buruzko bilera egin baino lehen, kideen eskura jarriko da justifikazio-memoria horren testu osoa, gutxienez hiru egun lehenago.
- 5.3.- Erregelamendu honek, eta berdin aldaketek, Batzar Orokorrak berresten dituen unean hartuko dute indarra.

I. TITULUA. Printzipioak eta eskumenak

6. artikulua.- Printzipio orokorrak

Bai Zuzendaritza Batzordeko kide diren enpresaburu elkartuek, bai haien ordezkari diren pertsona fisikoek, bai entitateko langileen ordezkari diren pertsona fisikoek, bai mutuari atxikitako langileen ordezkari gisa beren kontura ari diren langileek, Politika Orokorrean ezarritako printzipio orokorrak bete beharko dituzte, eta, zehazki, erregelamendu honetan xedatzen diren printzipio orokorrak, jarraian deskribatzen direnak:

- 1.- Gardentasunez jokatuko dute agindutako funtzioak kudeatzean, legezketasun-, osotasun-, eraginkortasun-, ekonomia- eta efizientzia-printzipioen arabera, eta interes orokorrak eta mutuaren interesak asetzeko helburuarekin.
- 2.- Beren funtzioak printzipio horien kontrako jokabiderik gabe beteko dituzte.
- 3.- Inpartzialtasun-printzipioa errespetatuko dute, irizpide objektiboa, independentea eta interes partikular orotatik kanpokoak izan dezaten. Ez dute egingo interes-gatazka sortzen duen jarduerarik.
- 4.- Beren funtzioak betetzean, berdintasunezko eta inolako bereizkeriarik gabeko tratua bermatuko dute, eta tratua bera emango diete kide guztiei, baita baldintza berdinetan dauden zerbitzu eta prestazioen erabiltzaile eta onuradunei ere, barne direla hizkuntza-berdintasuna errespetatzea eta jarduerak eta eskumenak garatzean euskararen erabilera aktiboki sustatzea, erakundeko kideekin, interes-taldeekin eta erakundeekin harremanak izatea eta hiztunen arteko berdintasuna sustatzea.
- 5.- Beren funtzioak behar den arretaz beteko dituzte eta, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan aritzean, zerbitzu publikoen prestazioaren kalitatea sustatuko dute, zerbitzu horien kudeaketa eraginkorra eta arina dela bermatuz.

- 6.- Jokabide duina izango dute eta pertsonak zuzentasun handiz tratatuko dituzte, giza eskubideen eta askatasun publikoen errespetua sustatuz. Mutuaren jarduerarekin zerikusia duten interes-taldeak ere kontuan hartuko ditu, batez ere langile babestuak, enpresa elkartuak eta atxikitako langile autonomoak, baita haien gizarte-ingurunea ere.
- 7.- Beren gain hartuko dute berei eta beren organoei dagozkien erabaki eta jarduketan erantzukizuna, legez eska daitezkeen beste batzuen kalterik gabe.
- 8.- Administrazio-egitura arrazionalizatzeko, sinplifikatzeko eta iraunarazteko neurriak hartuko dituzte, baita erabiltzaileek zerbitzu eta prestazio publikoak zuzenean eskuragarri izateko neurriak ere, jarduera etiko, eraginkor, efiziente eta gardena bermatuz.
- 9.- Entitatearen berritzeko gaitasuna sustatuko dute, kalitatezko zerbitzuak ematea erraztuko duten ikerketa- eta berrikuntza-politikak garatuz.
- 10.- Energia-aurrezpenak eta -efizientziak jasangarritasunari lagundu behar diote, kostuak murriztuz, energia-mendekotasuna murriztuz eta baliabide naturalak zainduz zerbitzu publikoak ematean.
- 11.- Energia-iturri garbiak erabiltzea, emisioak murriztea eta hondakinak eraginkortasunez tratatzea sustatuko dute. Garapen ekonomikoarekin batera emisioen eta sortutako hondakinen eta haien tratamenduen kostu soziala minimizatzea zainduko duten energia- eta ingurumen-politikak ezarriko dituzte.
- 12.- Entitateko kideen eta haien zerbitzu eta prestazioen erabiltzaileen hezkuntza eta etengabeko prestakuntza zabaltzea eta hobetzea bultzatuko dute, eta, horretarako, ezagupen- eta betetze-kultura egokia sustatuko dute, herritarren gizarte-kohesioa eta garapen pertsonala hobetzeko tresna gisa.

7. artikulua.- Jarduteko printzipioak

Era berean, Zuzendaritza Batzordeko kideek eta aurreko artikuluan adierazitako haien ordezkari pertsona fisikoek Politika Orokorrean ezarritako eta Erregelamendu honetan osatu diren jarduteko printzipio hauei jarraituz egokituko dute beren jardura eta beren funtzio eta baliatuko dituzte beren eskumenak.

- 1.- Mutuei, Mutualiaren estatutuei eta entitatearen gobernu korporatiboari aplikatu beharreko araudia erabat errespetatuz beteko dituzte beren funtzioak, eta edozein ustelkeria-motaren aurka egiteko kultura egokia sustatuko dute.
- 2.- Zuzendaritza Batzordeak deitutako bilera guztietara eta, hala badagokio, kide diren batzorde delegatuenetara joango dira (salbu eta ezinezkoa bada edo behar bezala justifikatutako arrazoiak badituzte). Eztabaidetan eta deliberamenduetan parte hartuko dute, eta askatasun osoz azalduko dituzte beren irizpideak eta iritzia, onespena edo eragozpenak, aztertzeke jartzen diren gaiei dagokienez.

- 3.- Konfidentzialtasun osoz gordeko dituzte Zuzendaritza Batzordeak edo haren batzordeek erabakiak prestatu edo hartzeko ematen dituzten edo ezagutzen zaizkien egitate, agiri eta informazioak, salbu eta isilpean ez daudela aitortzen bada edo publiko orokorrari jakinarazteko argitaratzen badira; eta betiere, beren funtzioetan jardutean parte hartu duten deliberamenduen edukiari dagokionez, xede horretarako bakarrik erabiliko baitituzte. Konfidentzialtasun-betebehar hori mantendu egingo da funtzioa/kargua utzi ondoren ere.
- 4.- Hartutako erabakiak errespetatuko dituzte eta Zuzendaritza Batzordearen batzorde delegatuetako kargu edo kide gisa parte hartuko dute.
- 5.- Pertsona edo organo erantzuleari jakinaraziko diote edozein ekintza edo omisio irregular, edo arau-hausteren bat dakarren edozein, Mutualiaren Barne Informazioko Sistemaren Politikan eta gainerako arauetan aurreikusitakoaren arabera horren berri badute.
- 6.- Indarrean dagoen araudiak ematen dizkien funtzioetan xede-batasunez jardungo dute, eta mutuei legez esleitutako funtzioak eta eskumenak behar bezala betetzea izango dute helburu, eman zireneko helburuarekin soilik, eta mutuaren interes publikoa edo ondarea arriskuan jar dezakeen edozein ekintza saihestuko dute.
- 7.- Ez dira inplikaturiko beren funtzioekin bateraezinak diren egoera, jardura edo interesetan, eta ez dute parte hartuko beren objektibotasunari eragin diezaiokeen interes-gatazkaren edo kausaren bat dagoenean.
- 8.- Ez dute onartuko ohiko azturak, sozialak edo kortesiazkoak gaingitzen dituen oparirik, ezta mesede edo zerbitzurik ere, beren funtzioen jarduna baldintzatu dezaketen baldintza onuragarrietan.
- 9.- Gardentasunez beteko dituzte beren funtzioak, kasuan kasu aplikatzekoak diren konfidentzialtasun-betebeharrez gain.
- 10.- Baliabide publikoak eta entitatearen baliabide pribatiboak egoki, arduraz eta eraginkortasunez kudeatu, babestu eta kontserbatuko dituzte, zeinak ezin izango baitira erabili aplikatu beharreko araudiak onartzen ez dituen jardueretarako, eta Gizarte Segurantzaren jasagarritasuna bultzatuko dute.
- 11.- Mutuan duten posizioaz ez dira baliatuko abantaila pertsonalak edo materialak lortzeko.
- 12.- Ziurtatuko dute betetzen dela entitateak irabazi asmorik ez duela eta, ondorioz, enpresa elkartuak eta atxikitako langileak erakartzeko jarduerak debekatuko direla dioen printzipioa.
- 13.- Administrazio publikoekin eta behar den arduraz arituko dira lankidetzan eta elkarlanean haien kudeaketari dagozkion gai guztietan, fede onaren, bidezko konfiantzaren eta leialtasun instituzionalaren printzipioei jarraituz.

- 14.- Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuen arteko lankidetzaz-esparruan leialtasunez jardungo dute, aurreko puntuan adierazitako printzipioen arabera orobat.
- 15.- Zuzendaritza Batzordea osatzen duten pertsona fisiko eta juridiko guztiek aurreko printzipio orokorrak eta jarduteko printzipioak betetzen dituztela zainduko dute.

8. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen eskumenak

- 8.1.- Zuzendaritza Batzordea kide anitzeko organoa da, presidenteak ordezkaturia, eta entitatearen zuzeneko eta berehalako gobernua, haren ordezkariak osoa eta haren ondare- eta gizarte-interesak defendatzeko beharrezkoak diren zuzendaritza-, administrazio-, xedapen- eta betearazpen-ahalmen guztiak dagozkio, aplikazio-araudian eta estatutu sozialetan ezarritakoak beste mugarik gabe. Mutuak administratzeko eta ordezkatzeko ahalmen eta gaitasun handienak ditu.
- 8.2.- Adierazpen gisa, eta ez muga gisa, Zuzendaritza Batzordearen eskumenak Mutualiaren estatutuetan ageri dira, eta Gobernu Korporatibo Onari buruzko eskumen espezifikoak, berriz, politika orokorrean eta erregelamenduhonetan ageri dira. Gainera, zuzendaritza- eta tutoretza-organoren estatutuetan edo araudian eta jarraibide puntualetan ezartzen da Zuzendaritza Batzordeak nahitaez ezagutu, aztertu eta, hala badagokio, erabaki behar duela gai jakin batzuei dagokienez.

Horien guztien laburpena, tasatu gabeko ikuspuntu praktikotik, eta errepikatu ohi direnena, taula honetan ageri dira, baita haiek egiteko egunak edo dagozkien erabakiak hartzeko egunak ere:

Zuzendaritza Batzordearen eskumen-arloak

Aldia/akordioaren data

Gobernu Korporatiboa

Gobernu Korporatibo Onaren Sistema diseinatu, onetsi, ebaluatu eta berrikustea.	Iraunkorra
Misioa, balioak eta xedea, eta haien berrikuspenak, onestea	3/5 urtean behin
Kode etikoa eta haren berrikuspenak onestea	Iraunkorra
Plan eta helburu estrategikoak onestea	3/5 urtean behin, eta urtebetera
Arrisku Penalen Prebentzio Sistemaren (Compliance Penala) "Zuzendaritzaren berrikuspena" agiria onestea, baita hori eskatzen duen beste edozeinena ere.	Urtero
Politika korporatiboak eta haien berrikuspenak onestea	Iraunkorra
Informazioko Barne Sistemaren arduraduna izendatzea eta kargutik kentzea.	Iraunkorra
Batzorde delegatuen erabakiak berrestea, gainbegiratzea, haien benetako funtzionamendua ebaluatzea eta, urritasunik badago, ekintza-plana onestea.	Hurrengo bilera/ urtean behin
Eman beharreko ahal orokorren egitura eta emandako ahalordetzeak arautuko dituzten arau orokorrak definitzea.	Entitatearen eta modu iraunkorrean
Kudeaketaren aitorpenak	Iraunkorra

Mutuei aplikatzekoa den araudia**Aldia/akordioaren data**

Gobernu- eta partaidetza-organoen bileretara joateagatiko konpentsazioen zenbatekoak berrikustea.	BEaren eta ZBaren urteko lehen bilera
Gizarte Segurantzaren Ondarearen eta Ondare Historikoaren kudeaketako esparru estrategikoen segimendua egitea	Iraunkorra
Zuzendaritza Batzordeko kideak izendatzeko proposamena eta Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkarien aldaketak berrestea.	Iraunkorra
Zuzendaritza Batzordeko eta haren batzordeetako karguak izendatzea (azken horietan izan ezik, presidentea Zuzendaritza Batzordean kargu hori duen pertsona izango baita).	Urteko Ohiko Batzar Orokorraren ondoko lehen bileran, Zuzendaritza Batzordeko karguetan.
Lurralde Batzarretako kideak izendatzea	Iraunkorra
Prestazio Berezien Batzordean enpresaburu elkartuen ordezkartzako kideak izendatzea	Iraunkorra
Prestazio Berezien Batzordearen kudeaketari buruzko urteko txostena onestea	Ohiko Batzar Orokorrak aurreko bilera
Aurrekontu-kredituakaldatzeko espedienteak onestea, zuzendari kudeatzaileari emandako kreditu-aldaketak izan ezik, hargatik eragotzi gabe azken horien berri Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bileran ematea.	Iraunkorra
Kontratazio espedienteak eta bitarteko pribatuekin egindako osasun-kontratuen itunak onestea	Iraunkorra
Ohiko Batzar Orokorraren ezohiko deialdiak onestea.	Martxoko urteko bilera eta ohiz kanpokoak, hala dagokionean
Urteko Kudeaketa Planaren itxiera onestea, aurrekontuen aurreproiektua egitea, kontuak formulatzea eta ematea.	Martxoko eta uztaileko urteko bilerak
Urteko helburuak onestea, ordainsaria eta urteko berrikuspenak finkatzea, eta helburuak betetzen diren zehaztea, zuzendari kudeatzailearen eta funtzio betearazleak dituzten goi- kargudunen osagarri aldakorrean ondorioak izanik.	Urteko lehen bilera, goi- kargudunen izendapenaren aurrean, eta kontuak egitea onesten duen urteko bileran
Finantza Inbertsioen Batzordearen urteko txostena onestea, finantza-inbertsioen politikaren betetze-mailari buruzkoa.	Ohiko Batzar Orokorrak aurreko bilera
Osasun- eta/edo administrazio-zentroak sortzea, aldatzea, lekualdatzea eta ixtea onestea, baita haien ondoriozko inbertsioak ere, kasuan kasu eska daitezkeen administrazio-baimenekin bat etorritik.	Iraunkorra
Gobernu Korporatiboaren memoria eta urteko txostena onestea	Ohiko Batzar Orokorrak aurreko bilera
Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzailetza Nagusiaren, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren, eta Kontuen Epaitegiaren auditoretza-prozedurei buruzko txosten, proposamen, ezohiko errekerimendu, ebazpen eta epaien segimendua eta, hala badagokio, onespina.	Iraunkorra

Zuzendaritza- eta tutoretza-organoak (Gizarte Segurantzaren Estatuko Idazkaritza, Gizarte Segurantzaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusia, Ekonomia Zirkularraren Idazkaritza Nagusia) jakinarazitako jarraibide, komunikazio eta zirkularren jarraipena	Iraunkorra
--	------------

II. TITULUA.- Antolaketa eta funtzionamendua

Estatutuetan eta Gobernu Korporatibo Onaren Politika Orokorrean xedatutakoa osatuz eta garatuz:

9. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen osaera, eta kideak eta ordezkariak hautatzeko arauak

9.1- Zuzendaritza Batzordeak honako kide hauek ditu:

- a) 10 eta 20 enpresaburu elkartu bitarte. Horietatik, % 30 langile gehien dituzten enpresei egokituko zaie, entitate horretako enpresaburuen ordezkaritzaarako ministerio eskudunak erregelamenduz ezartzen dituen tarteekin bat etorriz.
- b) Norberaren konturako langile atxiki bat, mutuari atxikitako norberaren konturako langileen ordezkari gisa.
- c) Batzar Orokorra osatzen duten entitateko langileen ordezkaria.

9.2.- Osaeran, honako hauek beteko dira: kide diren enpresa elkartuen (txikiak, ertainak edo handiak, langile kopuruaren arabera) ordezkaritza orekatuaren printzipioa; elkartutako eta babestutako kolektiboaren ordezkartzan duten kokapena, entitateak lurralde-ezarpen handiena duen lurraldeetan; eta haien ordezkari diren gizon eta emakumeena. Gainera, Zuzendaritza Batzordean askotariko ordezkartza sustatuko da adinari dagokionez, eta gutxieneko eta gehieneko pertsona-kopuru bat bilatuko da Zuzendaritza Batzordeak zehazten dituen adin-tarteetan; halaber, desgaitasunen bat duten pertsonen gobernu-organoetan parte hartzea erraztuko duten neurriak sustatuko dira.

9.3.- Zuzendaritza Batzordeko kideak edo haien ordezkaria hautatzeko orduan, zainduko da:

- a) Hautagaien proposamenak pertsona ohoragarri, egoki eta kaudimen, gaitasun, esperientzia, kualifikazio, prestakuntza, prestasunetabere funtzioarekiko konpromisoezagunekopertsonen egokitzea.
- b) Zuzendaritza Batzordearen osaeran gizonen eta emakumeen arteko ordezkartza orekatuaren printzipioa behar bezala betetzea.
- c) Euskadiko bi hizkuntza ofizialak ezagutzea merezimendu gisa baloratzea.

- d) Araudian eta Gobernu Korporatiboaren Sisteman ezarritako bateraezintasun, debeku eta eskumen- gatazka edo interes-gatazketarako arrazoi bakar bat ere ez gertatzea.
- e) Hautapen-prozedurek ez izatea inolako bereizkeriarik ekar dezakeen joera inpliziturik, eta, bereziki, ez oztopatzea Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkari izateko emakumeak hautatzea.

9.4.- Zuzendaritza Batzordeko kideak berritzeko eta karguen ondorengotzarako plangintza gauzatzean, kide bakoitzaren agintaldiaren mugaegunaren arabera, urte naturalean agintaldia amaitzen duten kideak zein diren egiaztatu eta haien berri emango du Zuzendaritza Batzordeak ekitaldi bakoitzeko lehen hiruhilekoan. Kideak modu mailakatu eta ordenatuan berritzen saiatuko da, eta ordezkarien adinaren arabera aurreikusten diren lanpostu hutsei aurrea hartuko die, estatutuetan ezarritakoaren arabera.

Zuzendaritza Batzordeko presidenteak, dagokien kide eta kargu guztiei, agintaldia edo kargua betetzeko aurreikuspena jakinaraziko die lehenengo hiruhilekoan. Haiek, era berean, apirilaren 30a baino lehen jakinarazi beharko diote entitateari agintaldia edo kargua berritzeko postulatu nahi duten edo ez, eta, hala badagokio, izendatu nahi duten ordezkaria edo haren ordezkoa izendatzeko proposamena; hori guztia, hurrengo Ohiko Batzar Orokorrean kideak izendatzeko eta aipatutako Batzar Orokorraren hurrengo Zuzendaritza Batzordearen lehen bilkuran karguak hautatzeko nahitaezko proposamenaren ondorioetarako.

9.5.- Sortzen diren lanpostu hutsak (araudia aldatu delako, Zuzendaritza Batzordeko kideak bere borondatez utzi duelako, presidenteari formalki jakinaraziz, Mutualiaren elkartze edo atxikimendua utzi duelako, kide-kopurua handitu delako, eta bateraezintasun-araubidea, debekuak eta Gobernu Korporatiboko araudia edo beste batzuk bete ez direlako), Estatutuetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, Zuzendaritza Batzordearen akordioz bete ahal izango dira behin-behinekoz, enpresaburu elkartuak eta atxikitako langile autonomoak eskaera/proposamen formala egin ondoren.

Entitateko enpresa elkartu eta langile autonomo atxiki guztiek dute Zuzendaritza Batzordeko kide izateko postulatzeko askatasuna, Estatutuetan ezarritako prozedurarekin eta baldintzekin bat etorritik.

Bete beharreko lanpostu bakoitzerako hautagaitza bat baino gehiago aurkeztuz gero, Zuzendaritza Batzordeak hautagai izan daitezkeenei gonbita egin ahal izango die (idatziz edo aurrez aurre) proposamenak aurkez ditzaten, eta arrazoiak eta interesgarritzat jotzen dituzten gainerako inguruabarrak azaldu ditzaten.

10. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen karguak

10.1.- Zuzendaritza Batzordeak, bere kideen artean, honako hauek aukeratuko ditu: presidente bat; 1., 2. eta 3. presidenteordetzetarako hiru pertsona; idazkari bat; eta idazkariorde bat. Gainerakoak batzordekide izango dira; guztiek ere estatutuek eta erregelamendu honek aurreikusten dituzten funtzioak beteko dituzte eta eskumenak izango dituzte.

PRESIDENTETZA, PRESIDENTEORDETZA, IDAZKARITZA eta IDAZKARIODETZA karguak aukeratzean, merezimendu gisa baloratuko da izendatutako pertsonen Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ezagutzea.

10.2.- Zuzendaritza Batzordeko PRESIDENTEAREN eskudantziak:

- a) Mutuaren eta haren gobernu-organoen ordezkari izatea eta haien sinadura eramatea epaiketari eta hartatik kanpo, eta edozein egintzatan. Horretarako, beharrezkoak diren eta Zuzendaritza Batzordeak alde aurretik erabaki dituen ahal, baimen eta delegazioak eman ahal izango ditu.
- b) Zuzendaritza Batzordearen, Batzorde Exekutiboaren, Kontrol eta Jarraipen Batzordearen eta, lehenengoaren izenean, Batzar Orokorraren bileren deialdia egitea. Bileren buru izatea, eztabaiden garapena moderatzea, bilkuren ordena eta martxa ona zainduz, eta bozketetako berdinketak erabakitzea.
- c) Batzar Nagusien eta Zuzendaritza Batzordearen, Batzorde Exekutiboaren eta, hala badagokio, Zuzendaritza Batzordearen baitan sortutako edozein batzorderen erabakiak gauzatzea.
- d) Hala dagokionean, zuzendari kudeatzaileari irizpideak, jarraibideak eta oharak ematea.
- e) Gobernu organoaren eta haren batzorde delegatuen aktak eta erabakien ziurtagiriak ikus-onestea.
- f) Berezkoak zaizkion eta, presidente den aldetik, dagozkion gainerako funtzioetan jardutea, eta indarrean dagoen araudian, estatutu sozialetan, Gobernu Korporatiboaren Sistemaren arauetan eta erregelamendu honetan xedatutakoa betetzea eta betearaztea.

10.3.- Zuzendaritza Batzordearen IDAZKARIAREN eskudantziak:

- a) Zuzendaritza Batzordearen bileretarako deialdiak sinatzea, lehendakariak aginduta.
- b) Zuzendaritza Batzordearen era guztietako bilkuretako aktak idatzi eta baimentzea, idazkari lanetan ari denean, lehendakariaren oniritziarekin.
- c) Idazkari gisa parte hartzen duen bilkuretan hartutako erabakien fede ematea eta Zuzendaritza Batzordearen akta eta erabakien beharrezko ziurtagiriak egitea, lehendakariaren oniritziarekin.

- d) Batzordekideen komunikazio-ekintzak jasotzea, hala nola jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak edo batzordeak ezagutu behar dituen bestelako idazkiak, eta eratzeko eta erabakiak hartzeko prozedura eta arauak errespetatzea.
- e) Zuzendaritza Batzordearen jarduketan legezkotasun formala eta materiala zaintzea, behar den aholkularitza emanez, eta erabakiak eratzeko eta hartzeko prozedura eta arauak errespetatzen direla bermatzea.
- f) Idazkari izateak berez dakartzan gainerako funtzioak betetzea eta indarrean dagoen araudian, estatutu sozialetan, Gobernu Korporatibo Onaren Sistemaren arauetan eta erregelamendu honetan xedatutakoa betearaztea.

10.4.- Zuzendaritza Batzordeko kideen ahalmenak. Zuzendaritza Batzordea osatzen duten ordezkariak, konfidentziasunari eta datuen babesari dagozkien betebeharrak errespetatuz, erakundearen kudeaketari buruzko edozein alderdiri buruzko informazioa jaso ahal izango dute, eta eragiketen liburuak, erregistroak, agiriak eta gainerako aurrekariak aztertu, instalazio guztiak ikuskatu eta goi-zuzendaritzako kideekin komunikatu.

Liburuak, erregistroak eta agiriak aztertzeko eta instalazioak ikuskatzeko ahalmenak baliatzeko, eskaera arrazoitua egin beharko da Zuzendaritza Batzordeko presidentearen bidez, edo, hura ez badago edo gai ez bada, presidenteordeen bidez, dagokien ordenaren arabera. Baimena ukatuz gero, Zuzendaritza Batzordeak hurrengo bileran aztertu beharko du egindako eskaera, berresteko edo baimena emateko.

Mutuak aplikazio edo biltegi informatiko bat jarriko du Zuzendaritza Batzordeko kideen eskura, Zuzendaritza Batzordeari edo haren batzordeei buruzko komunikazioak, aurkezpenak, informazioa eta dokumentazioa eskuratzea errazteko. Aplikazio edo biltegi elektronikoa horren bidez, Zuzendaritza Batzordeko kideei Zuzendaritza Batzordearen eta haren batzordeen bileretako aktak eskuragarri jarriko zaizkie, baita presidenteak edo zuzendari kudeatzaileak horretan sartzeari erabakitzen duen bestelako informazioa ere.

10.5.- Zuzendaritza Batzordeko kide eta karguen betebeharrak. Politika Orokorrean jasotako betebeharrak eta eginkizunak gain, mutuei aplikatu beharreko araudiak, haien estatutu sozialek, Gobernu Korporatiboaren araudiak eta erregelamendu honek ezarritako eginkizunak bete beharko dituzte.

Enpresaburu ordenatuen arduraz eta ordezkari fidelen leialtasunez jardungo dute, karguaren izaera eta bakoitzari esleitutako funtzioak kontuan hartuta, fede onez eta entitatearen eta Gizarte Segurantzaren interesa babestuz. Mutuei aplikatu beharreko araudiaren, haien estatutu sozialen, Gobernu Korporatiboaren araudiaren edo entitatearen eta/edo Gizarte Segurantzaren interes publikoaren aurkako akordioei aurka egin behar diete, eta aktan haien aurka daudela jasotzeko eskatu.

Enpresaburu ordenatu baten eginkizunak bete behar dituzte, Zuzendaritza Batzordeko kideak edo kargudunak fede onez jokatu badu, erabaki beharreko gaian interes pertsonalik gabe, nahikoa informazioarekin eta erabaki-prozedura egokiaren arabera.

Zuzendaritza Batzordea osatzen duten ordezkariak deklaratu dute badakitela eta onartzen dituztela funts publikoak kudeatzearen ondoriozko erantzukizunak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 91.4 artikuluan eta Aurrekontuei buruzko Lege Orokorren 176. artikuluan eta, hala badagokio, erantzukizunak arautzen dituzten beste arau batzuetan aurreikusten denarekin bat etorri. Halaber, beharrezkotzat jotzen diren agiriak sinatu beharko dituzte, baldintzen, betekizunen, bateraezintasunen eta debekuen gainean eska daitekeen ARDURA EGOKIA behar bezala jasota gera dadin.

11. artikulua.- Interes-gatazketan jarduteko arauak

INTERES-GATAZKA dagoela joko da mutuei aplikatu beharreko araudian aurreikusitako egoeretan, eta, bereziki, Mutualiaren interes-gatazkaren kasuan, prebentzio-, detekzio- eta kudeaketa-protokolo orokorrean aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Interes-gatazkaren bat izanez gero, Mutualiaren interes-gatazkaren prebentzio-, detekzio- eta kudeaketa-protokolo orokorrean aurreikusitako arauari jarraituz kudeatuko dira.

12. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideak eta haien ordezkariak kargutik kentzea

Zuzendaritza Batzordeko kideek, entitateko langileen ordezkariaren kasuan izan ezik (berezko araudia du), honako arrazoi hauengatik utziko dute kargua:

- a) Beren borondatez, presidenteari formalki jakinarazita.
- b) Hautetsi ziren lau urteko agintaldia bukatzeagatik.
- c) Mutuarekiko elkartzeko edo atxikimenduan baja emateagatik.
- d) Batzar Orokorraren erabakiz.
- e) Mutuei eta haien estatutuei aplikatu beharreko araudian ezartzen den bateraezintasun- eta debeku- araubidea ez betetzeagatik.
- f) Kode Etikoa eta Mutualiaren Gobernu Korporatiboaren gainerako araudia hausteagatik.
- g) Kapital-sozietateetako kontseilari-edo administratzaile-kargua betetzeko desgaitasun edo debekuarengatik.

Zuzendaritza Batzordeko ordezkari kargudunek kargua utziko dute aurreko paragrafoa a), e), f) eta g) letretan aipatzen diren arrazoiengatik, baita ordezkatzeko duen Zuzendaritza Batzordeko kideak hala erabakitzeagatik ere.

Kargugabetzeko erabakia formalki jakinaraziko zaio Zuzendaritza Batzordeko presidenteari, horretarako arrazoiak azalduta, edo presidentek zuzenean sustatuko du, Zuzendaritza Batzordeari berari erabakia hartzeko arrazoiak jakinaraziz, baita Gobernu Korporatiboaren urteko txostenean jasoz ere.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoa ezertan galarazi gabe, Zuzendaritza Batzordeko kideek, edo, hala badagokio, ordezkariak, Zuzendaritza Batzordearen esku utzi beharko dute agintaldia eta, hala badagokio, haren ordezkariak, kargua, kasu hauetan:

- a) Gerora sortutako inguruabarrak direla-eta, mutuei aplikatu beharreko araudian, estatutuetan eta entitatearen Gobernu Korporatiboaren araudian aurreikusitako bateraezintasun edo debekuren bat gertatzen denean.
- b) Haietako edozeini egozten ahal zaizkion egitate edo jokaeren ondorioz, Gizarte Segurantzaren ondareari, mutuaren ondare pribatiboari edo entitatearen izen onari kalte larria eragin zaionean, edo Mutualiari erantzukizun penaleko arriskua sortzen zaionean.
- c) Zuzendaritza Batzordeko kide edo kargu izateko zintzotasuna, egokitasuna, integritatea, kaudimena, gaitasuna, prestasuna edo bere funtzioekiko konpromisoa galtzen dutenean. Zehazki, garatzen dituen jarduera pertsonal edo profesionalek, edo kontrolatzen dituen sozietateek, zuzenean edo zeharka, haien egokitasuna arriskuan jar dezaketenean.
- d) Zuzendaritza Batzordeak larriki kargu hartzen dienean, beren betebeharretakoren bat hausteagatik.
- e) Zuzendaritza Batzordean jarraitzeak arriskuan jar badezake, edozein arrazoiengatik eta zuzenean nahiz zeharka edo harekin lotutako pertsonen bidez, bere funtzioak zintzotasunez eta arduraz betetzea, mutuaren eta/edo Gizarte Segurantzaren interesaren arabera.
- f) Izendapena eragin zuten arrazoiak desagertzen direnean edo legezko baldintzak betetzeari uzten diotenean.

Aurreko apartatuetan adierazitako kasuetako edozeinetan, baldin eta kide edo ordezkariari entzun ondoren gertaera eragileak egiaztatzen badira, Zuzendaritza Batzordeak kide edo karguari dimisioa emateko eskatuko dio, eta, ematen ez badu, kargua uzteko proposamena egin ahal izango dio Batzar Orokorrari, kidea izanez gero, edo kideari, kargua izanez gero. Azken kasu horretan, beste ordezkaribat proposatu beharko du, kargua utzi duena ordezkatzeko.

Kargu-uztearen proposamenek eragindako Zuzendaritza Batzordeko kideak eta karguak bileratik kanpo geratuko dira, dagozkien akordioen deliberamendu eta bozketetan.

13. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen bilerak

- 13.1.- Kideen herenek, gutxienez, eskatu behar dute ohiko edo ezohiko deialdia, estatutuetan aurreikusita dagoen moduan. Eskaera idatziz egin behar zaio presidenteari, batera edo bereizita, proposatutako eguna baino 5 egun lehenago gutxienez, eta arrazoiak edo proposatutako gai-zerrendako puntuak adierazi behar zaizkio.

13.2.- Zuzendaritza Batzordeak eratu, deitu, bilkurak egin, erabakiak hartu eta aktak bidali ahal izango ditu, bai AURREZ AURRE, bai URRUTITIK, modu telematikoan. Azken kasu horretan, ondoren adierazten diren baldintzekin:

- a) URRUTIKO ohiko zein ezohiko bilkurak egin ahal izango dira, modu telematikoan, betiere Zuzendaritza Batzordeko kideek edo haien ordezkariak behar diren baliabideak badituzte eta aldez aurretik presidenteak modu arrazoituan erabaki badu edo, hala badagokio, Zuzendaritza Batzordeko kideen gehiengoak idatziz eskatu edo aldez aurretik bozkatu badu. Hala utziko da jasota deialdian eta modu horretan egiten den bileraren aktan.
- b) Parte hartzen duten pertsona GUZTIAK EDO BATZUK leku desberdinetan egon ahal izango dira, baldin eta baliabide elektronikoen bidez (halakotzat hartuko dira telefonikoak eta ikus-entzunezkoak ere, bideokonferentzia edo audiokonferentzia anizkoitza edo posta elektronikoa barne) bermatzen badira kideen edo haien ordezkarien nortasuna, haien adierazpenen edukia, adierazpenok gertatzen diren unea, eta orobat haien arteko interaktibitatea eta interkomunikazioa badela denbora errealean eta komunikabideak eskuragarri dituztela bileran; eta aktan hala jasotzen denean.
- c) Pertsona guztiek urrutitik parte hartzen badute, joko da entitateak egoitza operatiboa duen tokian hartu direla erabakiak.

13.3.- Ohiko edo ezohiko bilerarako DEIALDIA honela egin behar da:

- a) Gutxienez 5 egun baliodun lehenago, premiazko arrazoiak daudenean izan ezik.
- b) Idatziz, Zuzendaritza Batzordeko kide bakoitzari, ahal dela formatu elektronikoa, baliabide telematikoaren bidez, honako hauek adieraziz: eguna; ordua (1. eta 2. deialdietan, gutxienez 30 minutuko aldearekin); tokia eta gai-zerrenda; bilera egingo den baldintzak, dagokion justifikazioa, konexio-sistema eta, hala badagokio, bilerara bertaratzeko edo hartan parte hartzeko behar diren baliabide tekniko guztiak eskuragarri dauden tokiak adieraziz, pertsona guztiak edo baten bat urrutitik bertaratzekoa edo parte hartzekoa bada.
- c) Hala badagokio, ahal dela, formatu elektronikoa ere aurkeztu beharko da baliabide telematikoaren bidez, edo, bestela, deliberamendurako, ezagutzarako edo aurretiazko azterketa egiteko informazioa edo agiriak gordetzen diren gune elektronikorako esteka eman beharko da.

13.4.- Aurrekoa gorabehera, Zuzendaritza Batzordearen EZOHIKO ETA PREMIAZKO bilkuretarako deialdia bilkura horiek jasotzeko aukera ematen duen edozein bide erabiliz egin ahal izango da. Kasu horretan, ez dira aplikatzekoak izango aurreko apartatuetan aipatutako deialdiaren baldintzak eta formalitateak, baldin eta inguruabarrek hala justifikatzen badute, presidentearen iritziz, eta deialdian hala adierazten bada

- 13.5.- Presidenteak bileraren GAI-ZERRENTA erabakiko du. Hala ere, gutxienez batzarreko kideen herenek idatziz eskatuz gero, presidenteari modu arrazoituan eskatu ahal izango zaio bestelako gaiak gai-zerrendan sartzeko, eta presidenteak nahitaez sartu beharko ditu, eskaera hori bilkura egiteko aurreikusitako eguna eta ordua baino berrogeita zortzi ordu lehenago jaso bada, gutxienez.

Ezin izango da deliberamendu edo akordioen xede izan gai-zerrendan ez dagoen gairik, salbu eta batzordekide GUZTIEK parte hartzen badute eta aho batez hala erabakitzen badute, edo bertaratutako gehienen aldeko botoak gaia PREMIAZKOA dela adierazten badu, ezertan galarazi gabe hurrengo 15.4 artikuluko azken paragrafoan xedatutakoa.

- 13.6.- Batzarrak behar adinako quoruma duela eta BALIOZKO MODUAN ERATU dela joko da, bilkurak, deliberamenduak eta akordioak hartzearen ondorioetarako, lehenengo deialdian, AURREZ AURRE (edo URRUTITIK, modu telematikoan, hala erabakiz gero), gutxienez kideen erdiak gehi bat (zazpi gutxienez) bertaratzen badira, eta bigarren deialdian, ordu erdi geroago, gutxienez, zazpi kide bertaratzen badira; betiere, PRESIDENTEAREKIN eta IDAZKARIAREKIN, edo, hala badagokio, haiek ordezkatzen dituzten pertsonekin.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa bete ondoren, ezin badira bilerara bertaratu, Zuzendaritza Batzordeko kideek beren ordezkaritza Zuzendaritza Batzordeko beste kide bati eskuordetu ahalko diote presidenteari zuzendutako idatzizko komunikazio baten bitartez, bilkura egiteko aurreikusitako eguna eta ordua baino berrogeita zortzi ordu lehenago gutxienez. Kasu horretan, ez da sortuko hurrengo 14. artikuluan aurreikusten den konpentsazioa jasotzeko eskubiderik.

Zuzendaritza Batzordeko presidenteari, edo hura ordezkatzen duen pertsonari, dagokio bilera baliozko moduan hasteko behar adinako quoruma dagoen ala ez erabakitzea.

Erabakiak bertaratutakoen eta ordezkatuen gehiengo soilez hartuko dira, eta, berdinketak ebazteko, presidenteari kalitatekotzat hartuko da.

- 13.7.- Presidenteak edo haren ordezkoak, erregelamendu honetako inguruabarrek eta aginduek justifikatzen dutenean, beharrezko neurriak hartu beharko ditu Zuzendaritza Batzordearen bilkuretan egiten diren deliberamenduen eta hartzen diren erabakien konfidentzialtasuna bermatzeko. Horretarako, Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkariei, edo bileretara joaten diren beste pertsona batzuei, konfidentzialtasun- eta ardura egokiaren konpromisoak sinatzeko eskatu ahal izango zaie.

- 13.8.- Bileran parte hartu duten pertsona guztiak ados badaude, eta hala adierazten badute, Zuzendaritza Batzordearen bilkuren grabazioa egin ahal izango da (audioan eta bideoan), datuak babesteko eskubideei buruzko informazioa jaso ondoren.

14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen eta haren batzordeen bileretara joateagatiko konpentsazioak

Estatutuen 25.4 artikuluan eta politika orokorrean ezarritakoaren osagarri, Zuzendaritza Batzordeko kideek, edo horiek ordezkatzuz gobernu-organoaren bileretara bertaratzen den pertsonak, batzorde eskuordetuen (batzorde exekutiboa, etikako batzordea, aholkularitzako batzordea, ordainsarien batzordea eta eratutako gainerakoak) bileretara ere badoanak, bertaratze-kompentsazioak eskuratuko dituzte, hain zuzen ere, Zuzendaritza Batzordeak, araudi aplikagarriak Mutualiari ezartzen dizkion mugak kontuan hartuta, urteko lehen bileran erabakitzen dituen horiek.

Era berean, aipatu bileretan aurreko 13.2 artikuluan aurreikusitako betekizunak betetzen dituzten komunikazio-sistema telematikoen bitartez URRUNETIK parte hartzen bada, bertaratze-kompentsazioa jasoko da. ZUZENDARITZA BATZORDEAREN bilkuretara modu presentzialean edo telematikoki bertaratzearen ondoriozko konpentsazioak Gizarte Segurantzaren ondarearen kargura ordainduko dira.

ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BATZORDE ESKUORDETUEN bilkuretara modu presentzialean edo telematikoki bertaratzearen ondoriozko konpentsazioak Mutualiaren ondare historikoaren kargura ordainduko dira.

Zuzendaritza Batzordearen eta batzorde eskuordetuen bilkuretara modu presentzialean edo telematikoki bertaratzearen ondoriozko konpentsazioak benetan ordaintzeko, bertaratu izana agiri bidez berretsi bada, bilkura egin eta, gehienez, 5 egun balioduneko epean, ordainketa-aginduaren agiria jaulkiko da, konpentsazioa jasoko duten ordezkarien edo kideen zerrenda eta bakoitzaren zenbateko gordin eta garbiak, zerga-atxikipena eta banku-kontuaren zenbakia adierazita. Agiri hori mutualitatearen administrazio-zerbitzu ekonomikoei igorriko zaie, zuzendari gerenteak edo horren ordezkioak izenpetuta.

15.artikulua.- Zuzendaritza Batzarraren aktak eta akta-liburua

15.1.- Zuzendaritza Batzordearen bilera guztietan dagozkien aktak egingo dira, eta gobernu-organo horren akta-liburuan jasoko dira. Liburu hori behar bezala izapidetuta egongo da, indarrean dagoen araudiak eskatzen duenari jarraikiz.

15.2.- Araudiak eta eginbide zein sinadura elektronikorako prozedurek aukera ematen badute, Zuzendaritza Batzordearen alde aurretiko akordioarekin, akta-liburuak formatu soilik elektronikoa izan ahalko du eta, kasu horretan, idazkariak eta presidenteak elektronikoki sinatutako aktak izan beharko dute; hori guztia, ezertan galarazi gabe paperean inprimatu eta gorde ahal izatea, baina formatu elektronikokoak hartuko dira jatorrizkotzat, elektronikoki sinatuta.

15.3.- Zuzendaritza Batzordeko idazkariak (edo, hala badagokio, dagokion bileran ordezkatu duen pertsonak) akta berrikusi, baliozkotu eta sinatuko du, Zuzendaritza Batzordeko presidentearen edo, bilerara joan ez bada, hura ordezkatu duen pertsonaren oniritziarekin eta sinadurarekin.

15.4.- Aktan honako hauek zehaztuko dira, nahitaez: bertaratutako kideak eta ordezkariak; bileraren gai-zerrenda; ohiko edo ezohiko bilera izan den; bilera egin den lekuaren eta denboraren inguruabarrak, adieraziz ordezkari guztiek edo batzuek aurrez aurre edo urrutitik parte hartu duten, bitarteko telematikoen bidez; deliberamenduetan aztertutako puntuen funtsezko edukiak; hartutako erabakien hitzez hitzeko edukia, kideen ordezkarien mintzaldiak eta boto partikularrak barne hartuz, berariaz jasota uzteko eskatzen dutenean edo, idazkariaren iritziz, deliberamenduen zentzua ulertzeko garrantzitsuak direnean.

Gainera, idazkariak jasota utziko du bitarteko telematikoen bidez urrutitik parte hartzen duten pertsonen alde aurretik egiaztatu dutela beren nortasuna, edo ezagunak direla nabaritasunez; behar diren baliabide elektronikoak eskuragarri dituztela eta sistemak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatu dela, baita bileran bideo- eta audio-seinalea denbora errealean transmititzen dela ere; eta bilerak irauten duten bitartean bertan daudela egiaztatu dela.

Ezohiko eta premiazko beharra izanez gero, eta aktan hala justifikatzen bada, presidenteak bileraren egunaren ondoren zehaztutako gai edo hartutako erabakiren bat sartzeko proposamena egin ahal izango du, posta elektronikoz jakinarazi eta jasotzeko proposamena egin ondoren, eta gaiari edo akordio-testuari adostasuna edo eragozpenak eskatzeko, bilkurara bertaratu ziren pertsona guztiek modu berean adierazita. Gai horri buruz emandako botoak jasota utzi beharko dira, baiezkoa eman bada, gaia edo erabakia onetsitza emango da bileran bertan.

15.5.- Bilkura bakoitzaren akta bileraren beraren ondoren edo Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bileran onetsi ahal izango da, honako hauekin bat etorriz:

- a) Posible edo beharrezko denean, akta irakurri eta, hala badagokio, onetsi ahal izango da dagokion bileran bertan, gai-zerrendako azken puntu gisa, eta dagokion eginbidea aktan bertan egingo da.
- b) Aurreko paragrafoan aurreikusitako prozedura erabiltzen ez bada, idazkariak aktaren zirriborroa bidali edo kokatu ahal izango du (posta elektronikoen bidez edo gune elektroniko baten bidez), Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkarien eskura jartzeko. Bertaratutakoek, bitarteko elektronikoaren bidez, testuarekin ados dauden edo eragozpenak dituzten adierazi beharko dute, onartu ahal izateko. Baiezkoa izanez gero, bileran bertan onetsiko da, eta horren guztiaren dagokion eginbidea egingo da aktan bertan. Hiru egun balioduneko epean erantzuten ez bada, bidalitako zirriborroarekiko adostasuna adierazi dela joko da.
- c) Aurreko paragrafoetan aurreikusitako bi prozedurak betetzen ez badira, Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bileran irakurri eta, hala badagokio, onetsi egin beharko da akta. Bilerak beharrik gabe ez luzatzeko, zirriborroa Zuzendaritza Batzordeko kide guztiei alde aurretik jakinarazi edo eskura jarri bazaie, irakurritzat eman ahal izango da, zuzenean bilera horretan onartuko den erabakitze.

15.6.- Bilkuraren grabazioa egin bada (audio- eta bideo-grabazioa), horren ondoriozko fitxategiak, idazkariak bilkuraren benetakotasuna eta osotasuna ziurtatzeko emandako ziurtagiriarekin batera, eta bilkurako agiri gisa erabili diren euskarri elektronikoko agiri guztiak bilkuren aktarekin batera aurkeztu ahal izango dira. Kasu horretan, ez da beharrezkoa izango gai-zerrendako puntuak eta hartutako erabakiak baino gehiago jasotzea.

Egindako bilkuren grabazioa euskarri elektronikoan egitea hautatu bada, dagozkien fitxategi elektronikoaren osotasuna eta benetakotasuna bermatzeko moduan gorde beharko dira, eta Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkariak fitxategi horietarako sarbidea izan beharko dute.

Onespen-taula eta berrikuspenak.

Data	Onespena
2021eko uztailaren 6a	Edizioa: Zuzendaritza Batzordearen onespena (2021/07/16ko Ohiko Batzar Orokorrak berretsia)
2023ko uztailaren 14a	1. ber. Zuzendaritza Batzordearen onespena (2023/07/14ko Ohiko Batzar Orokorrak berretsia) 2022ko eta 2023ko estatutu-aldaketetara egokitzea; eta 2023ko Gobernu Korporatibo Onaren Politika Orokorra aldatzea
2025eko maiatzaren 30a	2. ber. Zuzendaritza Batzordearen onespena (2025/07/18ko Ohiko Batzar Orokorrak berretsia) - Arau-erreferentzia eguneratuak sartzea - Zuzendaritza Batzordearen osaeran adinaren eta desgaitasuna duten pertsonen inklusio- eta aniztasun-irizpideak sustatzeko eginbeharra sartzea
2026eko martxoaren 26a	3.ber. Zuzendaritza Batzordea onestea (Ohiko Batzar Nagusiak 2026/07/17an berretsia) 14. artikulua aldatzea (Zuzendaritza Batzordearen bilkuretara telematikoki bertaratzearen ondoriozko konpentsazioak ordaintzea Gizarte Segurantzaren ondarearen kargura)



mutualia
